



HARITZALDE
Naturzaleen Elkartea

DONOSTIA-ORIO: HIRUGARREN BIDEA OKERTZEKO, 4 MILIOI EURO

Pulbikoa da, komunikabideetan larunbatean kaleratu zen berria: Donostia eta Orio elkartzen dituen GR 121a “hobetu” egingo dute, eta horretarako 4 milioi euro gastatuko dituzte.

Panel informatiboak, egurrezko zubitxoak eta eustekoak jarriko dituzte, eta lurra hobetuko dute (“mejorar el firme”), oinezkoek eta txirrindulariek erabil dezaten. Eta horretarako 4 milioi euro gastatuko dituzte.

Haritzalde Naturzaleen Elkartek lan hori beharrezkoa ez dela pentsatzen du; bada non gastatu 4 milioi euro, ez hor!

Iritzi hori sostengatzeko hona gure arrazoiak:

1. Donostiatik Oriora itsasoari begira joateko beste bi bide daude: asfaltatutakoa bat, eta bestea Santiago bidea. Biak dira egokiak oinezkoentzat zein txirrindularientzat.
2. GR121a da Donostiatik Oriora joateko dauden 3 bideetan basatiena. Oinez ibiltzeaz gain Naturaz gozatzea gustuko baduzu, 3 bideetatik hau da zuretzat egokiena. Bide hau “pasarelaz, zubiz eta “mejora de pavimento”z” atontzen badute, Santiago Bidea egiten dutenek beste bide bat aukeratzeko aukera izango dute, baina naturazaleok gure bidea galduko dugu.
3. Zer irabaziko du Donostiak, ekimen horrekin? Akaso turista gehiago erakarriko ditu Donostiara? Ez. Ekarriko du, 2 bideren artean aukeratu beharrean, 3 bideren artean aukeratu ahal izango duela, paseatzera aterako den ibiltariak. Botak jantzi ohi dituen mendizalea zapatak jantzita atera ahalko dela etxetik, Oriora joateko.
4. Asfaltatzea edo hartxintxarra botatzea, ibilbidea hobetzea da? Nola “hobetu” daiteke mendiko lurra? Alde Zaharreko etxeak eraikitzeke erabili zen Igeldoko harria, ez da orain ibiltzeko egokia!
5. Beldur gara. GR121a *Hyla meridionalis*-en habitata hartzen du bete-betean (eta arrabioarena, eta baso igel gorriarena, eta hainbat landare-espezie bereziena) eta lurra “hobetuta”, bidea zabaldua, eta mendiko *avenida* bihurtuta, ez dakigu nola eragingo dion.

6. 4 milioi euro gastatu behar badira, gasta ditzala Ingurumen Ministerioak Natura sustatuko dituen ekimenetan. Eta Mendizorrotzen gastatu nahi baditu, esaterako, atondu dezala ingurua merezi duen babes-maila lortzeko, edo Agitiko kala berreskuratu dezala eta garai bateko aintziratxoa (non *Hyla meridionalis* ugaltzen zen) birsortu dezala, edo landare inbaditzaileak ezabatu ditzala... Eta Donostiako beste nonbait bada, Urumean inbertitu dezatela ibai-parkea bultzatuz edota uholde lautadak naturarentzat berreskuratuz, edo Donostiako eraztun berdea sustatuz, edo Lau Haizeta parkeari bultzada emanez, edo... Eta inguruko herrietan izan badaiteke, Oriako itsaadarra berreskuratzen gastatu dezatela, Motondotik hasita adibidez, Plaiiaundiko kirol pistak beste norabait eramanez eta hezegunea berreskuratuz, Gaimtxurizketako korridore berdean...

Gainera, zalantza bat gelditu zaigu: Donostiako Udalaren gain geldituko omen da GRaren mantenua... zergatik ez du orain arte bere mantenua egin, eta zergatik egingo du hemendik aurrera?

Bukatzeko, galdera bat: zuetako zenbatek egin duzue Donostia-Orio zatia, GR121etik? Horrela hobetu beharra ikusi al diozue?

Donostian, 2013ko urtarrilaren 29an

